

EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2019



AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO

 Bilbao

ARTE GARAIKIDEA / FATXADA PROIEKTUA. DISEINUA,
ILUSTRAZIOA ETA KOMIKIA **UZT. 15 > IRA. 16**

Leire Urbeltz

Las Partes de La Malinche

Ilustrazioa



Leire Urbeltz artistaren obra izango da Arrikibar plazako fatxadaren udako hiletan jarriko baita ikusgai. *Borderland* argitalpenetik ateratako erretratu hirukoitza proposatzen du Urbeltzek.

Proiektua eratzen duten ilustrazioen artean, emakume ospetsu bati buruzko aurkako iritziak islatzen dituen erretratu bat dago: Malintxe da emakume hori.

Asko idatzi da garai kolonialean Hernan Cortési esklabo gisa saldu zioten eta lehen mestizoaren ama historikoa izango zen emakume horri buruz. **Leire Urbeltzek** Marisa Belausteguigoitia irakasle feministaren *Las nuevas Malinches: Mujeres fronterizas* artikulua hartu du oinarritzat, eta erretratu bat proposatu du, Zentroaren fatxadaren jarriko diren hiru olanetan zatitua. Alde batetik, Malintxe 'herri-saltzaile' traidore gisa agertzen da, konkistan Cortésen interpretatzaile, aholkulari eta bitartekari izandakoa.

Mexikon, 'malintxista' adjektibo gutxiesgarria bizkarreratzen zaio atzerrikoari lehenatasuna eman eta lurrekoa bazterten duen pertsonari. Bestetik, Malintxe biktima bezala agertzen da: herriaren saltzaile gisa azaldu ordez, saldua izan eta bizirik atera zen pertsona modura. Azkenik, Malintxe arraza berri baten ama mestizo bezala irudikatzen da.

////////////////////////////////////

Uztailak 15 > Irailak 16
Arrikibar Plaza (Fatxada)
Sarrera dohainik

////////////////////////////////////

 leireurbeltz.com

 [@Leireurbeltz1985](https://www.facebook.com/Leireurbeltz1985)

 [@leireurbeltz](https://www.instagram.com/leireurbeltz)

 [Leire Urbeltz](#)

////////////////////////////////////



LEIRE URBELTZ ilustrazio hedatua deitutakoaren mugak ikertzen ditu lanean. Bere lanik

personeletan, instalazioko material gisa jorratzen du ilustrazioa, eta hedatu egiten da, hala maila formalean nola kontzeptualean, sorkuntza garaikidearen konplexutasuna saihesten duten formula murriztaileak ezabatzeke.

Hala, bada, Urbeltzen lana lekualdatzen ari da etengabe, ez baita dituen posibilitateetan egonkortzen. Horren ordez, arte - arte ez denaren artean sortzen diren harremanak ikertzen ditu.

////////////////////////////////////

Fatxada proiektua. Diseinua, ilustrazioa eta komikia-k, Azkuna Zentroa-Alhóndiga Bilbaoko pareta nagusia sortzailentzako espazio bihurtzen du, hiriko bizitzan sarturik hizkuntza artistiko desberdinak erakusteko.